



VALLADOLIDEKO DEKLARAZIOA

Hirien
konpromisoa
ekonomia
zirkularraren
alde



Ayuntamiento de
Valladolid







COVID-19ak eragindako mundu mailako krisiak zalantzan jarri du gaur egungo hazkunde-eredua, ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean oinarritua. Eredu horrek baliabide naturalen erabilera intentsiboa dakar, eta presio handia eragiten du ingurumenean, eta, horren ondorioz, klima-aldaketa eta biodibertsitatearen galera areagotzen ari dira.

Ezohiko une batean gaude, eta aukera handia dugu herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten politikak bultzatzeko. Horretarako, aintzat hartu behar ditugu, pandemiak sortutako egoera ez ezik, klima-aldaketaren aurkako borroka, eta mugikortasun jasangarria, ekonomia zirkularra eta lurralde-oreka bultzatzen dituzten ekimenak, hiri jasangarriak, osasungarriak, seguruak, erresilienteak eta inklusiiboak diseinatzeko.

Koronabirusak eragindako krisi-egoerak agerian utzi ditu gure hirietako gabeziak, eta, aldi berean, aldaketa handiak eragin ditu espazio publikoen erabileran, garraioan, aisiaguneetan, hiri-ingurunearen eta landa-ingurunearen arteko harremanetan. Hori dela eta, behartuta gaude gure hiri eta herriak birdiseinatu eta birsortzera.

Horretarako, administrazio publikoek koordinatuta lan egin behar dugu, sektore pribatuarekin eta herritarrekin lankidetzan, XXI. mendeko beharrei erantzuteko irtenbideak bilatzeko.

Baina ez dugu ahaztu behar tokiko gobernuek funtsezko zeregina dutela aldaketa-prozesu horretan. Gure herrialdean, biztanleen % 80 inguru hirietan bizi dira, eta hirietan irabaziko edo galduko da jasangarritasunaren aldeko borroka; beraz, haiek izan behar dute protagonismo handiena errekonberazio-bidean. Hala ere, ez dira ahaztu behar landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko erlazioak, orekan oinarrituta egon behar baitute, oreka ekologikoa eta lurralde-oreka lortzeko.

Ezin dugu alde batera utzi Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak ematen digun aukera, aldaketa hori egiteko aukera emango diguten Europako funtsen zenbateko handi batek finantzatzen baitu.

Gure hiriak eta herriak berreraikitzeke ereduak bat etorri behar du Europako Itun Berdearen printzipioekin: ekonomia zirkularra, energia garbia, energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatea areagotzea, kutsadura ezabatzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka.

Sevillako Deklarazioak, zeina 20 milioi biztanle baino gehiago biltzen dituzten 231 toki-erakundek sinatu baitute, bultzada handia eman dio Garapen Jasangarriaren aldeko 2030eko Agendan jasotako GJHak betetzeari eta gure gizartearen deskarbonizatzeko prozesuari.

HORREGATIK, VALLADOLIDEN GAUR EKONOMIA ZIRKULARRARI, BERRERAIKUNTZARI ETA TOKI-ERAKUNDEEI BURUZKO JARDUNALDI HONETAN BILDU GAREN HIRIEK, GURE SINADURAREKIN, KONPROMISO HAUEK HARTU DITUGU:

- ★ Ekonomia zirkularraren alde Parisko hiriak egin zuen deia eta Sevillako Deklarazioa, 2017ko maiatzaren 15ean sinatua, bultzatzea eta babestea.
- ★ Tokiko gobernuek ekonomia Zirkularraren printzipioetan oinarritutako eredu berri bat sustatu eta garatzeko ekintzetan duten garrantzia azpimarratzea, administrazioerik hurbilenak baitira, eta, beraz, ingurumen-gatazka nagusiak prebenitu ditzaketanak.
- ★ Ekintzaile berrien eginkizuna bultzatzea, enpresa berriak garatu eta sortzeko prozesuetan gazteen protagonismoa indartuz.

- ★ 2030eko Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuak bete daitezen sustatzea, hiri-garapen jasangarria, osasungarria, inklusiboa eta erresilientea sustatuz, ingurumen-ondasunak eta -zerbitzuak sortzen dituzten jarduera sozioekonomikoen eskaera handituz, enplegu berdea eta kalitate handiagoko gizarte-enplegua sustatuz eta bidezko trantsizio ekologikoa bermatuz.
- ★ Ekonomia zirkularreko tokiko estrategiak garatzea, hala nola FEMPeK bultzatutako eredua, aukera emango dutenak toki-erakundearen eta haren lurraldearen egoera diagnostikatzeko, ekintza-planak egiteko eta adierazleak ezartzeko, eta hondakinak murrizteko helburuak beteko direla eta haiek etengabe hobetzeko planak etengabe berrikusiko direla bermatzeko. Estrategia horiek helburu hauek izango dituzte: hondakinen sorrera eta haien sorreraren eta kudeaketaren eragin kaltegarriak prebenitzea eta murriztea, baliabideen erabileraren eragin orokorra murriztea eta erabilera horren eraginkortasuna hobetzea, ingurumena eta giza osasuna babesteko eta ekonomia zirkular eta karbono gutxiko batera igarotzeko.
- ★ Uraren erabilera jasangarria bultzatzea, hornidura- eta saneamendu-sarea optimizatuz, uraren kontsumoaren eraginkortasuna eta aurrezkia handituz, ura berrerabiltzea sustatuz eta ura esku-ratzeko eskubidea bermatuz.
- ★ Espainiako Hiri Agendaren aplikazioa bultzatzea, jasangarritasuna lurralde-antolamenduan txertatuz, hiri-politikak gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-helburuekin bideratuz, eta hiri-trinkotasuna, -birsorkuntza eta -erresilientzia sustatuko dituen hirigintza sustatuz.
- ★ Higiezinaren parkean eta merkataritza- eta industria-sektoreetan energia-eraginkortasuna eta energia aurreztearen sustatzea eta pobrezia energetikoari aurre egiteko aholkularitza bultzatzea.
- ★ Espazioa mugikortasun jasangarria sustatzeko moduan antolatzea, eremu publikoaren okupazioa erregulatuz, oinezkoen erabilerara lehenetsiz, mugikortasun jasangarria hirigintza-plangintzan txertatuz, garraioak atmosferara egiten dituen emisioak murriztuz eta garraio kolektiboa sustatuz.

- ★ Ekoizteko, hornitzeko eta kontsumitzeko modua birpentsatzea, ingurunerako eta biztanleriarentzat osasungarriagoak diren jokabideak sortuz eta aukera-berdintasuna sustatuz, bai hiri-eremuan, bai landa-ingurunean.
- ★ Espazio eta jarrera osasungarriak sustatzea, landa-garapen jasangarria bultzatuz, osasunerako hirigintza sustatuz, ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatuz eta janari gutxiago alferrik galduz.
- ★ Ekonomia zirkularra teknologia berriak bultzatzeko iturri bihurtzea, eredu ekonomikoa aldatzen eta ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzeko.
- ★ Komunitate zientifikoa ekonomia zirkularra sustatzeko proiektu eta programen ikerketan eta garapenean sartzeko, I+G+B programak gehituz.
- ★ Administrazioen arteko lankidetzak sustatzea eta hirien artean praktika onak garatu eta partekatzea, ekonomia zirkularreko tokiko estrategiak garatzeko esparruan.
- ★ Lurraldearen maila anitzeko gobernantza sustatzea eta ekonomia zirkularra bultzatzeko tokiko ekintzetan gure bizilagunen kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta parte-hartzea hobetzea.
- ★ Lankidetzak publiko-pribatuak bultzatzea sektore publikoko eragileen, gizarte zibileko erakundeen eta sektore pribatuaren arteko aliantzak bultzatzeko.

Valladoliden, 2021eko ekainaren 30ean







VALLADOLIDEKO DEKLARAZIOA

Hirien
konpromisoa
**ekonomia
zirkularraren**
alde

FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE
MUNICIPIOS Y PROVINCIAS

FEMP

C/ Nuncio 8 - 28005 Madrid - Telf.: +34 91 364 37 00

www.femp.es

e-mail: femp@femp.es